



ZALDI ERO

«Herri honekin dudak loturarik nagusietako bat Bilboko Athletic da»

Txema Salcedo de la Torre

Peruko euskalduna da Txema Salcedo de la Torre. Gerra ondoren Limara egin zuen familiak, eta hantxe egin du bizimodua. Uda atarian, aitaren bidearen gaineko filma erakutsi zuen han-hemen Euskal Herrian.

Etixerat ezin joan ilhundu artean, egoten ohi dire zozoen elhean
Jean Martin Hiribarren

Miel A. Elustondo Gasteiz

«Hau irakurtzen duzuneko, mila legoa bitarte izango naiz, itsaso handiaren bestaldean, Peruko Liman. Orain dela hiru hilabete

izan nintzen Euskal Herrian, dokumental bat aurkezten. Filmaren izena, *Aita*, filmaren izena da. Alegia, nire aitaren historia da, 96 urtetan Liman hil zen gizonarena: Jose -baina *Pepe*-, Salcedo Molinero zen, Trapagaranen jaioa. Okina zuen aita. Lau anaia-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Etxean, baratza txikia eta behia zituzten, inguru hartan ohi zenez.

Hamabi urte zituela lanean zen, hala okindegian nola handik-hona enkarguak egiten eta materiala garraio.

Espainiako gerra zibila baino lehen ere izan zen gerrarik gure familian, gure aitaitak Kuba eta Filipinetako borroketan parte hartu baitzuen 1898an... Espainiako armadarekin borrokatu zen, jakina, Espainiak gerra galdu

eta Kuba eta Filipinak ere galdu zituen. Espainiako gerra zibila, beraz, bigarren gerra izan zen gure etxean... Gure aita PNVren MAI [Máquinas de Acompañamiento de Infantería], Irrintzi gudarostean sartu zen. Nire aita mortero sailean ari zen. Batetik bestera ibili ohi ziren, baina, inondik ere, Eibarreko frentean jardun zuten gehiena, Burdinaz-

ko Hesian. Hura galdu zenean, eta Santoña [Kantabria, Espainia] zihozela beren burua italiarren eskuetan uztera, han non harripatzen dituen Francosen armadak. Aita preso hartu zuten, ez dakit zuzen zenbat denbora egin zuen barruan, Burgosen egon zela besterik. Handik lekora, etxera itzuli zen. Trapagaranera, nahiz eta laster salatu zuen baten batek, gorritzat, gerrako kriminaltzat eta diren eta ez diren esanez nire aitaren kontra. Guardia zibila edo polizia etorri eta eraman egin zuten. Hilko ere zuten, baina beraren aitak -Kubako gerran borrokatu baitzen-, laguna zuen Olasoko markesa, gizon aberatsa, Trapagaranen jauregi eder bat zeukana. Nire aitak kontatu zidanenez, aitaitak laguntzeko eskatu zion Olasoko markesari eta, horrela, honen bitartekaritzari esker irten omen zen onik aita. Panorama, hala ere!

Ama Matilde de la Torre Montori nuen, baina *Txirri* esaten zioten, Athleticen futbolariaren omenez. Amaren aldeko adarra dela -eta, esan behar dut XX. mendean 20ko hamarkadatik, senideak genituela Perun. Haste-ko, han ziren amamaren neba, German Ortiz Montori, eta amamaren lehengusu bat, Pedro Montori Uriarte. Amamaren gizona Bilbon geratu zen Bilbo setiatu zutenean, nahiz eta gero Frantzia aldera ihes egin behar izan zuen. Atzera itzultzeko garaia heldu zenean, Bilbora etorri zen familia dena. Nire amak bazuen ahizpa bat zaharragoa, izeko Maria Luisa, eta neba bat, gazteagoa, osaba Txomin. Txomin hau Perura bidali zuten 1937an, hamalau urte zituela. Amamaren nebaren esku utzi zuten. Ordurako, gizon hura ondo bizi zen, gizartean goi-mailako emakume perutar bat emazte eginda. Txomin, beraz, haiekin bizi izan zen.

Ni 1946an jaiotzen, Bilboko Zorrotzan, Transito estratan, 7. zenbakian. Gaur egun ez da etxe hura, ez haren antzik. Aspaldi berdin zuten lurraekin. Aitaita -Domingo de la Torre-, hila zen, eta, amamaren neba Germanek Perura joateko konbentzitu zuen, amama, eta gure familia osoa! Horrela heldu ginen Perura 1951ko otsailan. Ume bakarra nintzen, eta gerora ere ez nuen anai-arrebarik izan. Eta umerik ere ez dut izan nik...

Hor bada gauza bat. Nire amaren ahizpa zaharrago hari, izeko Maria Luisari, Peru ez zitzaion bature gustatu, eta hartu barkua eta Bilbora itzuli zen. Pintura fabrika



ZALDIERO

Ikurrina

«Aita bizi zelarik, hil baino urte eta erdi lehenago, film bat jaso nuen, zinta pirata banatzaile baten bidez: *La pelota vasca*, Julio Medemena. Bertan ageri diren irudi zaharren artean, morroi bat mortero bat kargatzen. «Horixe aitaren antza!». Eta aitari hots egin nion: «Aita, zu zara?». Zalantzan izan ginen. Zorionez, ondoan nuen kame-
ra bat, laguna, dena grabatzen. Grabatutakoa ikusi aitzak, eta galdetu zidan: «Zer egin behar duzu honekin?». «Ez dakit!». Orduan ez nekien, baina nire filmaren abiapuntua zen. Paperean zenbait ohar idazteko esan nion, eta idatzi ere bai aitak, artean letra txukuna zuen eta. Finean, kronika bat zen, nola joan zen gerran frontera, nondik nora ibili zen eta beste. Filmaren gidoia egin zidan! Euskal Herria etorri eta hark ibilitako lekuetako batzuk ibili nituen, Sabino Arana Fundazioaren eta Trapagarango Sancho de Beurko Elkartearen laguntzaz. MIA Irrintziko lagunien izenak eman zizkidaten, eta hau eta hura. Horrela hasi nintzen. Zerk bultzatu ninduen filmategira ez dago erraz esaten. Historia bera interesgarria da.

Bestalde, nik, nagusitan, haurretan entzundako gerra istorioak egiaztatu nahi nituen, aitzak kontatzen zituen anekdotak... Biziazen amaiera aldera aitak anekdota haiek kontatzen segitzen zuen, nahiz bestelakoak zituen entzuleak: bera zaintzen zuten erizainak. Haiek beste belaunaldi bateko emakumeak ziren, beste kultura batekoak; andetarrak batik batik. Haatik, jakin-minez eta arretaz entzuten zioten. Aita hiltzeko zorian zela, emakume haietako batek esan zidan: «Akordatzea ez ahaztu: bandera». Ikurrina. Interneten arakatu eta *Flags on line* jo nuen. Eta ikurrina erosi nion. Aitak heriotza aurreratu zuen, ordea, nik ikurrina jaso baino lehen joan zen. Erizainetan arduradunak, ikurrina ez genuela jabetu zenean, erran delako bandera hori nolakoa zen galdetu zidan, eta nik eredu txiki bat eman nion. Hura hartu, Sorquilloko merkatura joan, oihala erosi eta maletak konpontzen zituen batengana joan zen. Hark, josteko makinan egin zion bandera, unean bertan. Ikurrina hartu eta aitaren hilkutzia elizara sartzen ari zenean heldu zen erizaina, ikurrina eskuan, doi-doi. Horrelaxe, estu eta larri, baina ikurrina gainean zuela sartu zen aita parrokiara...».

batean hasi zen lanean Bilbon. Izekok kontatzen zuenez, ugazabetako bat preso zeukaten, Mugimenduaren printzipioak zin egiteari uko egin ziolako. Inoiz ez zuen zin hura egin. Izekok hemen egin zuen bizialdia, harik eta lanetik erretiratu eta 80ko hamarkadaren hasieran Perura joan zen arte. Burutik nahastuta zebilen, eta familiaren beroan hiltzera joan zen, inondik ere. Hantxe hil zen izeko Maria Luisa, Liman. Heliodoro de la Torrerekin senidetuak ziren, Agirre lehendakariaren gobernu Ogasun ministroarekin, alegia.

Horrela heldu ginen Perura, eta hantxe egokitu ginen, baina, bitartean, gogoan dut nola egin genuen bidaia. *Reina del Pacifico* zuen izena gure itsasontziak. Egia esan, ez dakit benetakoroitzape-nak datan, edo kontaktu dizkidatena egin ditudan oroitzapen. Hor bada lausorik. Dakidanez, amak bidaia txarra egin zuen, zorabiatuta, botaka. Dakidanez, Limako portura heldu ginenean,

«Gure etxean uste zabaldua zen euskalduna gauza berezia zela, arraroa»

«Liman, bi munduren artean zangalatraba bizi izan nintzen beti»

«Aita zahartu arau, euskaldunagoa sentitu nintzen eta euskalduna izateak zer esan nahi duen azaldu beharrak ere ni are euskaldunago sentiaraztea ekarri zuen»

«Kultura honen bizirauteko gaitasuna ikusi dut, jendearen erresistentzia indarra, bere burua berresteko ahalmena»

nik ez nuen jaitsi nahi. Ingeles zerbitzarien lagun egin nintzela esaten omen nuen! Haiekin ingelesez hitz egiteko gauza omen nintzen! Egundorik... Ondoren datoz etxeari eta auzoari lotutako oroitzak. Etxe hartan bertan hil zen aita, eta hantxe bertan bizi naiz ni oraindik.

Gure familia abertzalea zen. Antifrankistak ziren, zeharo, Perun ere. Gure etxean uste zabaldua zen euskalduna gauza berezia zela. Denboraren joanean, nire baitan, «berezi» hori arraro esan nahi zuela ulertu nuen. Esan nahi horixe eman nion. Eta oso txikitandik, gerrako kontuak kontatzen zituen aitak. Diote hemen ez dutela kontaktu izan. Gurean, aitak ez zuen atzeratzen. Argi, hala ere! Niri bai, kontatzen zizkidan, etxean, baina ez kalean. Besteak beste,

Liman genituen senide urrutiko batzuk frankistak zirelako! Behin, gogoratzen dut, Perura heldu berri-
ritan, haietako baten jauregira sartu, egongelara, eta lehenengo gauza ikusi genuena, Francoren irudia! Haren semea ere frankista porrokatua zen! Aita kontuz ibiltzen zen horrelakoetan. Harro-
ria gutxi haiekin! Besterik zen osaba Txominekin. Hura ez zen Euskal Herrira egundo itzuli, eta ez zen itzuli Franco bizirik zegoelako! Gogoan dut beste familia bat, Liman hura ere, guztiz abertzalea. Errepublikaren urpeko baten kapitaina zen. Espinosa, izenez. Diotenez, Frantziako agintari-
rei eman zien urpekoak! Jakina, aberriaren kontrako traidoretzat jo zuten, heriotza zigorra zuen Espainian. Gizon horrekin ere frankoan hitz egiten zuen nire aitak gerraz. Lotura horixe zuten... Istori-
o horiek txikitandik entzun nituen nik etxean. Amak ez zuen as-
korik kontatzen. Gerraren gainean puskaz gehiago kontatzen zuen amamak!

Horrela hazi nintzen, giro horretan, kontraes-
anen artean, jaio nintzen herritik kanpo, lur berri-
an, bi munduren artean zangalatraba beti. Hanka bat Bitorian, bestea Londresen, esaerak dioen moduan. Azkenean, identitateak ez duela unibokoa zertan izan onartzen duzu, osagai ezberdinak eduki ditzakeela. Bestalde, gauza harri-
garria gertatu zitzaidan: aita zahartu arau, euskaldunagoa sentitzen nintzen. Aitarekin egindako berri-
ketaldi askoren ondorioa izan zen; batetik, behintzat. Bestetik, nire

hurrekoei euskalduna izateak zer esan nahi duen azaldu beharrak ere horixe ekarri zuen, ni are euskaldunago sentiaraztea. Azalpe-
nak era askotakoak ziren: batzue-
tan, karikaturazkoak; odol mota-
ren istorio hori, esate baterako. Bestetue-
tan, bestelakoak. Sentimen-
dua gorabehera, bi nazionalitateak ditut nik, espainiarra, Bilbon jaio nintzelako, eta perutarra, Perun ere. Gure etxean uste zabaldua zen euskalduna gauza berezia zela. Denboraren joanean, nire baitan, «berezi» hori arraro esan nahi zuela ulertu nuen. Esan nahi horixe eman nion. Eta oso txikitandik, gerrako kontuak kontatzen zituen aitak. Diote hemen ez dutela kontaktu izan. Gurean, aitak ez zuen atzeratzen. Argi, hala ere! Niri bai, kontatzen zizkidan, etxean, baina ez kalean. Besteak beste,

Liman badugu euskal etxea, baina inoiz ez ginen hara joan izan. Tira, ez naiz zuzen ari. Sasoi

batean, edo behin edo behin, aita joan izan zen, baina zerbait ez zitzaion gustatu, eta ez zen itzuli.

Kazetaritza izan dut lanbide Liman, eta euskal gairik kasik batera ez zait fortunatu lanean, irrati nahiz telebistan. Izatekotan, Belsaren Athleticen garaipenak. Talde haren garaipenak oso inportanteak izan ziren Perun, euskalduna izatea zer den azaltzeko balio izan zutelako. Jokalari guztiak bertan jaiotak zirela, taldearen balioak... Euskaldunen presentzia denaz bezainbatean, eliza katolikoari zor zaio gehiena: apaizak, misiolariak, gotzainak... hainbat izan dira han. Orainxe bertan ere, Loreto eskualdeko hiriburu Iquitosko gotzaina hemengo da. Peruko eskualderik handiena da Iquitos, Amaluzerik

Han hainbat dira misiolari euskaldunak. Eta euskalduna dute gotzaina. Ez dut ezagutzen, baina hemengo omen. Aldiz, Irizar monsinorea bai, ezagutu nuen. Irrati-telebistako enpresa batean hasi nintzen 1995ean, eta gogoan dut Gabonetan Irizar monsinore-
ak meza esan zuela irratian –entpresaburuen laguna zen, inola ere–, eta euskaraz kantatu zuela! Jainkoaren izenean!

1951n joan nintzen Limara, eta hemen nintzen 1956an, ama eta amamarekin. Harrezkero, dozena erdi joan-etorri egin ditut, eta herri honen eboluzioa ikusteko modua izan dut. Hasteko, kultura honen bizirauteko gaitasuna ikusi dut, jendearen erresistentzia indarra, bere burua berresteko ahalmena. Bestalde, nik Limako

etxean ikusten zuena benetan existitzen zela ikusi ahal izan nuen: ama-semeen arteko harremana, hemengo zen, ez Peruko-
koa. Hango sukaldean kuzinatzen zena, hemen ikasia zen. Gizarte berdintasunari buruzko pertzepzioa, hemengo zen: aberatsaren eta langilearen arteko harremana igualitario xamarra zen hemen, eta hori zeharo ezberdina da Perun eta Latinoamerikako herri kolonialetan. Eta, beste gauza bat oso inportantea, niretzat, behintzat, Bilboko Athletic. 1956ko urriaren 14an San Mamesen izan nintzen partida ikusten: Athletic 1 – Bartzelona 1. Bartzelona hasi zen irabazten, eta bigarren zatian berdindu zuen Athleticek. Gainza ikusi nuen! Nire bizialdiko espe-
rientziarik handienetako bat! Bronkitisak jota ohean eman nuen Bilboko aldi hura. Izeko Maria Luisaren apartamentuan ginen, Labairu kalean, 37. zenbakian, etxe egin berria. Hain berria ere, han baitzebilen beti zurgina, hara eta hona, lana amaitzen. Nik San Mamesera joan nahi nuen, ez nuen beste gogorik! Athleticen elastikoa eta gorbata ere banituz! Ni teman, eta zurgin hark esan zidan eramango ninduela, baina ni beti ohean, gaixorik. Egun batean, horratik!, izekok esan zidan berak eramango ninduela. Eta izeko eta biok joan ginen, ni hamar urteko, bronkitisa sendatzen. Eta San Mamesen, hura euri zaparrada!

Egia esatera, nik herri honekin dudatan loturarik nagusietako bat Bilboko Athleticen gorabeherak dira. Futbol partidak telebistak ematen ez zituen garaian astelehenetan egiten nuen lehen gauza kirol orrialdeak begiratzea izan ohi zen. Ikastetxean ari nintzela, apaiz frankistek horixe galdetzen zidaten: «Zer moduz doa zure taldea?». Jakina, haiek Real Madrid zaleak ziren, gure pitzia beltza beti. Gaztetan, Athletic izan nuen lotura. Gero, 80ko hamarkadaz gero, modernitateaz jabetu nintzen, eta Bilboren itxura aldatzen.

Dokumentalaz hizketan hasi gara, eta buka dezagun han bezala. Filmean «Agur!» esanez uzten gaitu aitak. Euskarazko hitz horixe geratu zait niri, «aita» eta «amatu»-rekin batera. Aitak ez zuen euskaraz hitz egiten, ama ebebiduna ote zuen nago, eta amamak, aldiz, gaztelaniaz hitz egiten ez zekiela uste dut. Bizkaiko leku askotan euskaraz izan zuen galeraren erakusgarri da gure familia... Nik ez dut euskaraz sekula ikasi, baina aitak bezala esan nahiko nuke: «Agur!».